



EMAKUMEEN
ETA GIZONEN
BERDINTASUN-
ESKUBIDEEN
DEFENTSARAKO
ARLOA

Emakunde-
Emakumearen Euskal
Erakundea

URTEKO
TXOSTENA

1.	ESPARRU OROKORRA	4
1.1	Jarduketa esparruak	5
2.	BEREHALAKO AHOLKULARITZA	6
3.	IDATZIZ ERANTZUTEN DIREN ETA AURRETIAZKO AZTERKETA ESKATZEN DUTEN KONTSULTAK	6
4.	KEXEN PROZEDURAK	7
4.1.	Komunikazioaren eta publizitatearen inguruko 2022ko kexen espedientei buruzko ekarpenak eta kontrastea.	9
4.2.	Beste arlo batzuei buruzko kexak	12
5.	2021. URTEKO GOMENDIOEN JARRAIPENA	15
6.	KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK	15
7.	IRIZPENAK	15

SARRERA

Urteko txosten honetan, Emakundek 2022an sektore pribatuan berdintasun-printzipioaren eta sexu-arrazoiengatiko bereizkeriarik ez jasateko eskubidearen defentsarako eman dituen zerbitzuak azaltzen dira. Emakundek arlo honetan dituen funtzioak eta mugak otsailaren 16ko 3/2012 Legearen 64. eta 65. artikuluetan daude jasota, hurrenez hurren (3/2012 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzekoa).

Aipatutako artikuluekin bat etorriz, lau jarduketa-mota egin dira:

- Esparru orokorra.
- Eskatzaileei berehalako aholkularitza ematea, telefonoz edo aurrez aurre.
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Kexen prozedurak.

Sektore pribatuan sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa pairatu duten emakumeen eta gizonen defendatzeko jarduketa-esparru orokorraren lehen atalean, emandako berehalako aholkularitzari buruzko informazioa bildu da; bigarreanean, erantzundako kontsulten eta kexen datu orokorrak; eta hirugarrenean, idatziz erantzuten diren eta aldez aurreko azterketa behar duten kontsulten gainekoa. Halaber, kexen prozedura ere hartzen du barnean, arreta berezia eskainita komunikazio eta publizitate sexisten gainekoei. Azkenik, bestelako organismo eta erakundeekin lankidetzan eta koordinaturik aritzeko mekanismoak zehaztu dira.

1. ESPARRU OROKORRA

Otsailaren 18ko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzea xedatu zen, sexu-arrazoiengatik diskriminazioko egoeretan herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea sustatzeko organo gisa, eta bere funtzioak eremu pribatura mugatzen ziren.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzen dituen otsailaren 16ko 3/2012 Legeak Defentsa-erakundea ezabatu zuen, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari bere edukiak, eskumenak eta funtzioak esleitu zizkion; nolana ere, atxikipen organiko berria dela-eta, funtzioak pixka bat doitu ziren, eta, gaur egun, honako hauek ditu:

- a) Ikerketak egitea, ofizios edo alderen batek eskatuta, sektore pribatuan sexu-arrazoiengatik ustez gertatutako zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak argitzeko.
- b) Negoziatzeko bideak ematea eta gomendioak egitea pertsona fisikoei nahiz juridikoei, sektore pribatuan sexu-arrazoiengatik diskriminazio-egoerak edo ekintzak zuzentzeko, eta gomendio horien jarraipena egitea, betetzen diren ala ez ikusteko.
- c) Herritarrei aholku ematea, sektore pribatuan sexu-arrazoiengatik diskriminazio-egoerak jazotzen direnean.
- d) Bitarteko izatea jazarpen sexistaren kasuak konpontzen laguntzeko.
- e) Egiten dituen jardueren eta ikerketen berri ematea, eta txostenak eta irizpenak egitea, lege honetan xedatutakoari jarraikiz.
- f) Lan-arloko agintaritzarekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan diskriminazioaren aurkako lan-arauak betetzen diren begiratzeko.

2022ko martxoaren 3an, Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko 1/2022 Legea onartu zuen. 47. eta 54. artikuluen artean, berdintasun-eskubideen defentsaren eta bazterkeria ezaren arloetako funtzioei, mugei eta zehapenei buruzko artikuluetako batzuk aldatzen dira. Hala ere, aldaketa horiek argigarriak baino ez dira, egun indarrean dauden administrazio-arauetara egokitu beharrak eragiten ditu, eta ez dakarte arau-aldaketa nabarmenik.

1.1 Jarduketa esparruak

Gizonen eta emakumeen berdintasun-eskubideen defentsarako arloak hainbat jarduketa-eremutan dihardu. Batik bat, zuzeneko aholkuak ematen ditu, telefonoz nahiz aurrez aurre. Ondoren, azterlanen bat behar duten kontsultak edo aholkuak daude, eta horiek idatziz erantzuten dira, posta elektronikoz. Hirugarren jarduketa-eremua kexei buruzkoa da.

- Zuzeneko arretarako bulegoen jarduera (aurrez aurreko eta telefono bidezko aholkularitza).
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Ikerketa-prozedurak behar dituzten kexak.

2022an, herritarren arretarako berehalako 194 zerbitzu eman dira, guztira. Herritarren arretarako berehalako zerbitzuez gain, 2022an 73 kontsultari erantzun zitzaizen idatziz. Azkenik, 30 kexa-prozedura kudeatu dira 2022an.

Jarduera	297
Berehalako arreta	194
Kontsultak	73
Kexak	30

Aholkularitza eskatu dutenek erabilitako komunikazio-bide nagusia posta elektronikoa

izan da, eta gehienek gaztelania erabili dute zerbitzu honekin komunikatzeko. Eskabide guztietatik, 18 euskaraz aurkeztu dira, eta beste bat, berriz, bi hizkuntzetan. Prozedura horien eskabide-egile gehienak emakumeak izan dira (% 85); gizonak, berriz, % 3. Gainerako kasuetan, ez da aintzat hartu behar eskubidearen titularra, % 10, erakundeei, kontsultariei eta ofiziozko hasierei dagokielako eta % 2, sindikatuei edota langileen ordezkariari.

2. BEREHALAKO AHOLKULARITZA

2022an, herritarren arretarako berehalako 194 zerbitzu eman dira, guztira. Horietatik gehienak (% 50) dibortzioei, banantzei, zaintzei eta mota askotako gatazkei buruzkoak dira (auzokideen erkidegoa, senideak, oinordekotzak...); gai horietan emakume bat izan da eskaeraren titularra, baina ez dira Emakunderen jardun-eremuaren eskumenekoak. Lan-esparruko galderak % 26 izan dira, batez ere familia-etxeko zerbitzuari buruzkoak. Azkenik, genero-indarkeriaren inguruko aholkularitzak zenbatu dira (eskaeren % 24).

	2022
Herritarren berehalako arretarako zerbitzuak	194
Lan-esparrua	50
Indarkeria	47
Beste batzuk	97

3. IDATZIZ ERANTZUTEN DIREN ETA AURRETIAZKO AZTERKETA ESKATZEN DUTEN KONTSULTAK

Herritarren arretarako berehalako zerbitzuez gain, 2022an 73 kontsultari erantzun zitzaizkien idatziz. Eskaera horiek aipatzen dituzten arrazoiaren artean, 56 lan-esparrukoak dira; kontsulta gehien izan duen hurrengo esparrua «Beste batzuk» izan da. Azken esparru horretan emakumeen eta gizonen berdintasun-eskubideen defentsarako arloari ez dagozkion gaiak planteatu dira, baina, hala ere, idatzizko orientabideak eta aholkua jaso dituzte eskaera horiek ere. Zerbitzuen arloko lau 4 aholkularitza-saio izan dira, bestalde, kirol-arloko eta komunikabideen eta publizitatearen esparruko kontsulta bana jaso ditu.

Lan-arloan, nabarmendu behar dira 901/2020 eta 902/2020 Errege Dekretuen esparruko aholkularitzak. Zehazki, langileen ordezkariak galdera asko egin dituzte berdintasun-planen negoziazio-prozesuari buruzko informazioa eskatzeko. Gainera, enpresa eta aholkularitza-enpresa askok aipatutako arauak betetzeko moduari buruzko informazioa behar dute. Berdintasun-planen erregistroak kontsulta ugari sortzen ditu, zehazki, berdintasun-plana erregistratu ahal izateko betebeharrak. Arlo horretan, nabarmendu behar da enpresa askok, plana eduki beharrik ez izan arren¹, boluntarioki egiten dutela, baina beren ezaugarriengatik ezin dituzte erregistratzeko eskatzen diren baldintza guztiak bete puntu guztietan. Hori dela eta, kontuan hartuta gure industria-ehuna, batez ere, borondatezko planak dituzten ETEek eta kooperatibek osatzen dutela², negoziatioari eta erregistroari buruzko gaiak kontsulta eta aholkularitza ugari sortu dituzte.

Oraindik ere familia eta lana uztartzeari buruzko eskaerak daude, bereziki, zaintzarekin zerikusia duten eskubideak baliatzearekin lotutakoak eta jaiotzagatik lan-kontratua eteteari buruzkoak.

Idatzizko kontsultak	73
Lan-arloa	56
Beste batzuk	11
Zerbitzuen arloa	24
Hedabideak eta publizitatea	1
Kirol-arloa	1

4. KEXEN PROZEDURAK

Gaur egun, zabala eta konplexua da sexu-arrazoiengatik diskriminazio-egoeretan dauden emakumeak eta gizonak defendatzeko jarduketaren esparru juridikoa. Jarraian aipatzen da zein diren, orokorrean, berdintasunerako eta sexu-arrazoiengatik diskriminaziorik ezerako eskubidearen alde egitea babesten duten oinarrizko arauak:

¹ Berrogeita hamar langileko edo gehiagoko enpresen kasuan, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, berdintasun-neurriak zuzendu beharko dira berdintasun-plan bat egitera eta aplikatzera, 901/2020 Errege Dekretuan aurreikusitako irismenarekin eta edukiarekin (2.2 artikulua).

² 901/2020 Errege Dekretua lan-kooperatibei aplikatuko zaie besteren kontura lan egiten duten pertsonen dagokienez (ez bazkideei dagokienez).

- Emakumearen aurkako diskriminazio-era guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW); NBEren esparruan hartutako nazioarteko arau hori dela bide, estatu sinatzaileek hitzartu dute emakumeen kontrako diskriminazioa ezabatzeko politika jarraitzea, behar diren bitarteko guztien bidez eta luzapenik gabe. Hori horrela: «Emakumearen aurkako diskriminazioa» esamoldeak agertuko du sexuan oinarritutako diskriminazio, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea (politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan) emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarritzko askatasunak, eta horien izatea eta egikaritzea, haren egoera zibila gorabehera, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna oinarri.
- 1978ko Espainiako Konstituzioa; horren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak berdinak direla legearen aurrean, eta ezin dela sexu-arrazoiengatik diskriminazioa gailendu.
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatzen du emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak edozein motatako diskriminazioa baztertzeko duela, zuzeneko edo zeharkako izan, sexu-arrazoiengatik eta, batez ere, amatasunaren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoak.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistari Gabeko Bizitzetarako Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua.

KEXEN PROZEDURAK

2022an emakumeen eta gizonen berdintasun-eskubideen defentsarako arloak kexen 30 prozedura landu ditu. Espediente guztietatik, 9 gomendio bidali dira, guztiak emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatu eta bermatzeko proposamenetan oinarritutakoak. 19 espediente beste erakunde batzuetara bideratu dira; eta horietatik,

10 Madrilgo Emakumeen Institutuko Emakumeen Irudiaren Behatokira bideratu dira publizitateari edo komunikabideei buruzkoak izateagatik, eta publizitatea bertan behera uzteko errekerimendu bat bidali da. Gainera, sei kexa bideratu zaizkio Arartekoari; hiru beste administrazio publiko batzuei, berdintasunerako teknikarien bidez. Bestalde, eskaera bat artxibatu egin da, eskaera bidali duten pertsonak ez baitute informazio gehigarririk bidali ikerketa-prozedura bat hasi ahal izateko.

Kexen kopurua	30
Publizitatea eta komunikabideak	17
Lan-esparrua	7
Zerbitzuak	2
Kirola	2
Beste batzuk	2

4.1. Komunikazioaren eta publizitatearen inguruko 2022ko kexen espedienteei buruzko ekarpenak eta kontrastea.

Emakumeen eta Gizonen Eskubideak Defendatzeko Arloaren eta Begira Batzordearen arteko lankidetzaren betebeharra dela medio, herritarrek publizitatearen eta komunikabideen gainean aurkeztutako kexak eta Batzordeak berak ofizioz planteatzen dituen kexak kudeatu ditu Defentsarako Arloak.

2022an, 17 kexa-espeditente bideratu dira. Jasotako kexetan oinarrituta, BEGIRAK 6 gomendio eman dizkie hainbat erakunderi, oinarri hartuta Kode deontologikoan eta emakumeen aurkako indarkeriaren publizitateari, komunikazioari eta informazio-tratamenduari buruzko dekalogoetan jasotako printzipioak. Eskumen-arloa dela eta, 9 eskabide Emakumeen Institutuko Madrilgo Irudiaren Behatokira bideratu dira eta beste bat Nafarroako Berdintasunerako Institutura. Azkenik, nabarmendu behar da publizitatea bertan behera uzteko errekerimendu bat bidali dela.

Kexaren bat jartzen duten pertsonen profila honakoa da, oro har: emakumea; 31 eta 40 urte artekoa; unibertsitate-ikasketak eta lanaldi osoko lanpostua dituen.

Kexa motaren arabera, 9 publizitatearen arloko kexak dira, eta beste 8, berriz, komunikazioaren arlokoak. Publizitatearen esparruan, kexa gehienak, ustez genero-estereotipoak eta -rolak indartzen zituzten iragarkien gainean egin dira, hala nola gazte,

argal eta gorputz perfektuko izatearekin lotzen den edertasun-eredu bakar bat islatu eta emakumeen gorputza gauza bihurtzen duten iragarkien gainean. Komunikazioaren esparruan, batez ere emakumeen aurkako indarkeria banalizatzen duten eta emakumeen irudi estereotipatua helarazten duten kexak dira.

Herritarrek erakunde honekin harremanetan jartzeko aukeratutako hizkuntzari dagokionez, eskabide gehienak gaztelaniaz egin dira, eta 2 euskaraz.

Jasotako kexak, edukien tipologiaren arabera

Jasotako kexak, nola publizitateari buruzkoak hala komunikazioarekin lotutakoak, 2021ean indarrean zeuden formularioetako puntuetan oinarrituta aztertu eta sailkatu dira:

Publizitate sexistaren inguruko kexak jasotzeko inprimakia:

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_de_f/adjuntos/inprimakia_publicidade_sexista.pdf

Komunikazio sexistaren inguruko kexak jasotzeko inprimakia:

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_de_f/adjuntos/inprimakia_komunikazio_sexista.pdf

Publizitate-edukiak

Erabilera sexista mota nagusiak hauek izan dira: emakumeen gorputza erabiltzea objektu estetiko/sexual gisa eta gaztetasunean eta osasunerako jarrera kaltegarriak ere susta ditzaketen gorputz-ereduetan oinarritutako edertasun-ereduak bultzatzea.

Publizitateari buruzko kexak eskumen-eremuan

Jasotako kexetan oinarrituta, BEGIRAK, bere eskumen-eremuen barnean, gomendioa bana bidali dizkie egoitza soziala EAEn duten bi erakunderi. Bi gomendio horiek publizitate-dekalogoaren aplikazioan daude funtsatuta. Metaleko Enpresen Bizkaiko Federazioari gomendio bat igorri zaio, eta La Rubia diskotekari publizitatea bertan behera uzteko errekerimendu bat.

Eskumen-arrazoiengatik bideratu diren kexak

BEGIRA batzordearen jarduketarako lurralde-eremua EAE da eta, beraz, gure erkidegoan egoitza duten erakunde publiko eta pribatuak (bai publizitate eremua, bai komunikazioarena). Halere, era guztietako kexak jasotzen dira, aztertu egiten dira eta Batzordearen eskumen-eremutik kanpo badaude, eskumena duen organora bideratzen dira kexa bidali duen pertsonaren berariazko baimenarekin. 2022an, kexa bat bideratu zaio Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eta gainerakoak, Espainiako Emakumeen Institutuko Emakumeen Irudiaren Behatokiari. Kexak jaso dituzten iragarleak honako hauek izan dira: Basarana, Jimmy Choo, Propagandisten Elkarte Katolikoa, Ikea, Desigual, Alcampo, Hole X musikala eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

Komunikazio-edukiak

Komunikazioaren esparruan, batez ere, emakumeen kontrako indarkeria hutsaltzearekin lotutako kexak helarazi dira; edo emakumeak eta gizonak desberdin eta modu estereotipatuan erakusten eta erlazionatzen direlako aurkeztu dira kexak.

Komunikazioari buruzko kexak BEGIRAREN eskumen-eremuan

BEGIRA batzordeak ez dauka berariazko funtziorik kexak jasotzeko komunikazioaren alorrean. Halere, eta esleitutako gainerako funtzioak garatzeko, komunikabideek emakume eta gizonen berdintasunarekin bat egiten duten edukiak eman ditzatela sustatzeari dagokionez, kexa horiek bi helbururekin jasotzen dira: lehenik, gomendioak bidaltzeko eta komunikabideetan eremu hauetan sentsibilizazio-estrategiak garatzeko eta, bigarrenik, detektatzeko zein eduki mota diren audientziak gutxien onartzen dituenak.

EAEn kokatutako komunikabideen artean, enpresa hauei bidali zaizkie gomendioak: *El Correo* eta *Noticias de Gipuzkoa*.

Eskumen-arrazoiengatik bideratu diren kexak

Publizitatearen eremuan bezala, komunikazio-eremuan ere BEGIRAREN eskumenaren-eremutik kanpo dauden kexak jasotzen dira. Kexa horiek dagozkien erakundeei igortzen zaizkie, eta 2022an Estatuko Emakumeen Institutuko Irudiaren Behatokira bideratu dira komunikabide hauei buruzko kexak: *SER*, *20 Minutos* eta *Mujer Hoy*.

Publizitatea eteteko eskaerak:

Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorrean ezarritako eginkizunak betez, publizitatea bertan behera uzteko errekerimendua bidali zen La Rubia diskotekara. Errekerimendua eragin duen iragarkia diskotekak zabaldu zuen festa bat sustatzeko honako mezu honekin: «CHICAS GRÁTIS» (neskak doan). Kotsideratu zen iragarkiak bi mezu transmititu zitezkeela: batetik, emakumeak doan sar zitezkeela diskotekara, eta, bestetik, emakumeek dohainik zituztela ongietorri-edariak. Erakunde honek behin eta berriz adierazi duenez, horrelako publizitate-mezuak legez kanpoko publizitatea osatzen dute oinarritzen direlako emakumeen kosifikazioan, alegia, emakumea sexu-objektu bihurtzen funtzio bakarrarekin: ahalik eta gizon gehien erakartzea. Horregatik guztiagatik, presaz bidali zen publizitatea bertan behera uzteko errekerimendua.

4.2. Beste arlo batzuei buruzko kexak

Prozedura horiek batez ere arlo hautetakoak izan ziren: gehienak komunikabideen eta publizitatearen esparrukoak (% 56); jarraian, lan-arlokoak (% 23); eta atzetik, bakoitzak kexen % 7rekin bestelako arloa, kirolena eta zerbitzuena daude.

Beste eremu batzuk

Publizitateari eta komunikazioari buruzko arloaren atzetik, kexa gehien eragin dituen hurrengo arloa lanarena izan da. Beste eremu batzuei buruzko kexak ere jaso dira, hala nola zerbitzuei, kirolari eta arlo batean baino gehiagotan sartu daitezkeen bestelakoei buruzkoak.

Hona hemen Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen emakumeen eta gizonen Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloan jarritako kexen zerrenda, kexaren arrazoia eta emaitza zehaztuta:

Q20220017 espedientea	
Kexaren arrazoia	Langile publiko baten kexa, ustez negatiboki diskriminatu dutelako gaixotasun larria duen adingabe bat zaintzeko baimena erabiltzearen gainean

Eraitza	Bideratua
---------	-----------

Q20220018 espedientea	
Kexaren arrazioa	Emakumezkoen futbol-taldeeii tratu diskriminatzailea emateari buruzko kexa
Eraitza	Gomendioa

Q20220031 espedientea	
Kexaren arrazioa	Kirol-klub baten praktika diskriminatzaileen gaineko kexa
Eraitza	Artxibatua

Q20220040 espedientea	
Kexaren arrazioa	Kexa Euskadin elikadura-portaeraren nahasmendurako unitaterik ez dagoelako
Eraitza	Bideratua

Q20220041 espedientea	
Kexaren arrazioa	Kexa enpresa batek hitzarmen kolektibo ezberdinak aplikatzen dizkielako estereotipatutako lanei generoaren arabera
Eraitza	Gomendioa

Q20220047 espedientea	
Kexaren arrazioa	Kexa administrazio publikoa batek emandako diskriminaziozko tratua dela-eta
Eraitza	Bideratua

Q20220048 espedientea	
Kexaren arrazioa	Kexa eskola publiko batean familia eta lana bateragarri egiteko arazoak daudelako

Eraitza	Bideratua
---------	-----------

Q20220061 espedientea	
Kexaren arrazoia	Administrazio publiko batek berdintasun-unitaterik ez izatea
Eraitza	Bideratua

Q20220067 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kexa dantza-klub bateko praktika sexistak direla eta
Eraitza	Gomendioa

Q20220071 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kexa sistema judiziala oso motela delako
Eraitza	Bideratua

Q20220086 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kexa ikerketako bikaintasun-zentro bati Berdintasun Plana erregistroan inskribatzeko eskaera ukatu zaiolako
Eraitza	Bideratua

Q20220095 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kexa administrazio publiko baten azpikontrata batek ustez sexu-bereizkeria egiten duelako
Eraitza	Bideratua

Q20220103 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kexa administrazio publiko batek sexu-bereizkeria egiten duelako

Emaizta	Bideratua
---------	-----------

5. 2021. URTEKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

2022. urtean, 2021ean bideratutako gomendioen jarraipena egin da. Errekeritutako pertsonak adierazi dute konpromisoa dutela Emakundek emandako gomendioarekin.

6. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK

Beste erakunde batzuekiko harremana dela-eta, 2022. urtean harremanak eta bilerak izan dira erakunde publikoekin, lankidetzak-mekanismoak ezartzeko.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearekin elkarlanean ari gara, eta zenbait lan- eta koordinazio-bilerak egin dira. Gainera, horren jardun-arloari buruz herritarrek planteatutako gaiak igortzen zaizkio, eta laguntza eskatu zaio elkarrekin aholkularitza emateko herritarrei, erakunde bakoitzak, bere eskumenetik eta ezagutzatik.

Berdintasunari buruzko prestakuntzari dagokionez, eta Emakundek EHUrekin duen akordioaren gerizpean, herritarren berdintasun-eskubideak defendatzeko zerbitzuak tutore gisa dihardu Zuzenbideko Graduak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Masterreko ikasleen praktikan.

Azkenik, UPV/EHUren Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoarekin elkarlanean jarraitzen da. Klinika hori unibertsitate arloan diskriminazioaren kontrako estrategiak diseinatzeko eta giza eskubideak defendatzeko laborategi bat da, eta, aldi berean, Zuzenbidearen ikaskuntza eta eraldaketa pedagogikorako esparru bat.

7. IRIZPENAK

Gizarte-arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 95.3 artikulua aplikatuz, Bilboko 10. gizarte-arloko epaitegiak eskatuta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak irizpen bat eman zuen langile batek sexu-bereizkeriagatik aurkeztutako demanda bati buruz. Irizpenean ondorioztatu zen langilea kaleratu bazuten berdintasun-diagnostikoa

eta -plana osatzeko parte hartzeagatik, errepresaliak izan zitezkeela eta, beraz, sexuagatiko diskriminazioa.